5.26 POLAND SINDROMEA

E. Gonzalo Alonso ; N. Salmon Rodríguez; N. Rodríguez Leniz; M. Navarro de Prado; J.M. Arguinzoniz Marzana;
M. J. Azcarate Lorca; A. Rodríguez Cerezo; F. Salmon Antón.
C. S. ARRIGORRIAGA - UGAO. Bizkaia

KASU KLINIKOA

6 Urteko neskatoa. Eskuin muskulu pektoral nagusi eta bular glandula eza.

AP.: Asma alergikoa. (akaroei)

EXPLORAZIOA:

- Eskuin muskulatura pektoral nagusi eta txikiaren galera.
- Eskuin bular glandularen agenesia.
- Bular, areola eta pezoiaren asimetria.
- ildo Delto-pekotaralen alterazioa

IRUDI FROGAK :

- Hemitorax homolateralaren bolumen jaitsiera:
  Birika hipoplasikoa, eskuin hemidiafragmaren igoera, saihetsen makurdura, bihotzaren desplazamendua kontrako aldera.
- Eskoliosis arina.



POLAND SINDROMEA

EZAUGARRIAK

- Gaixotasun kongenitoa, ez hereditarioa.
- Muskulu pektoral nagusiaren galera partzial edo osoa
- Beste anomalia homolateral batzuk uztartzen ditu (%75 eskuin aldekoak) .
- Inzidentzia 25.000 jaiotzatik 1.
- Maiztasuna: Gizonezkoak > Emakumeak.
- Ez du eraginik osasun mentalean.
- Jatorri ezezaguna. Arteria subklabiak daraman odol enbrionarioaren etena,
- haurdunaldiaren 6. eta 7. astean

AURKEZPENA

- Urritasun estetikoak.
- Era arruntena: muskulu pektoral nagusiaren galera.
- Era konplexuenak: ondorioak saihets, torax, besape, eta besoan. Ondorio funtzionalekin.
- Saihetsen agenesia edo lesioak

- Esternoiaren deformazioa.
- Bular glandula eta pezoiaren aplasia edo asimetria.
- Muskulu abdominalen agenesia
- Sindaktilia eta brakidaktilia (Falange erdi-distalean)



TRATAMENDUA

- **ESTRATEGIA SEXU, ADIN ETA LARRITASUNAREN ARABERA.**
- **BERRERAIKITZE KIRURGIA PLASTIKOA OSO GOMENDAGARRIA DA ARRAZOI ANATOMIKO ETA ESTETIKOAK DIRELA ETA.**

  1. Pektoral nagusian inplatea (pareta torazikoaren zuzentzea eta silikona protesi bat jartzea muskulu dorsal handiaren azpian.
  2. Mastoplastia: Baitaere alde sanoan, simetria lortzeko asmoz.
  3. Eboluzioaren jarraipen zorrotza, bizkarrezurraren deformazioak garaiz antzemateko.

- **MEDIKU-PAZIENTEAREN ERLAZIOA FUNTSEZKOA DA EMAITZA ONAK IZATEKO:**

  1. Laguntza psikologikoa ezinbestekoa da, daraman sufrimendua dela eta.
  2. Pazientearen konfiantza eta uste osoa beharrezkoak dira kirurgia berritzailerako.
  3. Tratamendu pertsonalizatua alde fisiko eta emozionaletik